

ZARAUZ / Irakurgai gida 'Freskagarriak 2013' eskuragai Sanz Eneako liburutegian

Dagoeneko kalean da, 2013ko uda honetarako familia osoarentzako titulu sorta bat proposatzen da Zarauzko udal liburutegitik, 'Freskagarriak 2013' gida. Bertan haur, gazte eta helduentzako liburu, disko eta filmak iradokitzen dira. Azken hamabi hilabeteetan argitaratuak izan diren titulu artean 100 izenburu aukeratu dira, 50 euskaraz eta 50 gaztelaniaz, denak eskuragai.

Uda honetan adin ezberdinetarako eskaintza zabala aurkituko duzue aurtengo Freskagarrietan, adin taldeen arabera antolatuta. Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko bazkide direnek, maileguan eskatzeko edo erreserbatzeko aukera dute katalogo bateratua. Beraz, liburutegira hurbildu besterik ez duzue.